Aretxabaletako Udala

2026ILAE0019

ALKATETZA DEKRETUA

ESPEDIENTEA: 2026ILAE0019

GAIA: Lanbideko dirulaguntzarekin liburutegiko laguntzaile baten kontratazioa (egun 1/2)

TITULARRA: ARETXABALETAKO UDALA

ERABAKIA

Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21. artikuluak ematen dizkidan eskuduntzez baliaturik, honako hau erabakitzen dut:

I 26/01471 zenbakidun Alkatetza Dekretua.- -2026ko urriaren 20ko Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpenaren bidez, enplegua sustatzeko toki-ekintzetarako 2026ko dirulaguntzen deialdiaren barruan liburutegiko laguntzaile bat kontratatzeko oinarriak onartu.

-Liburutegiko laguntzailea egun erdiz kontratatzeko lan-eskaintza Lanbideko webgunean argitaratzea.

Oinarriak:

Lehiaketa bidez liburutegiko laguntzaile bat kontratatzeko deialdia

1.- Deialdiaren xedea

2026ko urriaren 20ko Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpenaren bidez, udalak langabetuak kontratatzeko aukera du eta honako deialdiaren bidez liburutegiko laguntzaile bat kontratatuko du egun erdiz, eta 6 hilabeterako.

2.- Betekizunak

Betekizun orokorrak:
-Liburutegia eta Haur Liburutegiko kudeaketa lanak egitea.
Betekizun zehatzak:
-Bilduma erregistratzetik eta antolatzetik eratorritako zereginak: dokumentuei alta eman, prestaketa eta antolaketa lanak.
-Funtsak gordailuan eta aretoetan jarri eta ordenatzea.
-Dokumentuak mailegatzeko, berrizteko, itzultzeko eta liburutegien arteko maileguak egiteko prozedimenduak egitea; erreklamazioak egitea, desideratak bideratzea, nobedadeen zerrendak eguneratzea.
-Erabiltzaileei arreta eta aholkularitza ematea.
-Erabiltzaileak Katalogoaren erabileran trebatu eta laguntzea.
-Irakurzaletasuna bultzatzeko jardueretan laguntzea.
-Ordenagailu eta Wifi zerbitzua kudeatzea.
-Bere kategoriari dagozkion eta aldez aurretik esleitzen zaizkion beste edozein zeregin.

3.- Izangaiek bete beharrekoak

Onartuak izateko eta, hala badagokie, lehiaketan parte hartzeko, ondoko baldintza hauek bete beharko dituzte izangaiek:

Sinatzailea	ALKATEA Garikoitz Iturbe Etxebarria
	Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Egiazkotasuna ziurtatzeko joan interneteko orrialde honetara: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/13/AAAAR2CEB.Cqu4

Aretxabaletako Udala

a) Langabezian egotea.

b) Euskal Enplegu Zerbitzuan langabetu gisa izena emanda egotea.

c) Bailaran erroldatuta egotea.

d) Titulazioa: Batxilergoa edo teknikoa.

e) Euskarako 3.Hizkuntza eskakizuna izatea.

4.- Eskabideak

Lehiaketan parte hartzeko Lanbiden izena eman beharko da 2026ko azaroaren 30erako. Eskabidea Lanbiden aurkeztearekin batera, merezimenduak Aretxabaletako Udaletxean edota Udalaren egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu beharko dira, Lanbiden lan-eskaintza argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izen emate epea bukatu aurretik.
Eskabidearekin batera agiri hauek aurkeztu beharko dira:

-Nortasun Agiri Nazionalaren agiria.
-Dagokion lanposturako eskatzen den titulua.
-Euskara: C1 hizkuntza eskakizunaren egiaztagiria.
-Merezimenduak egiaztatzen dituzten agiriak: ikastaroak, lan-bizitzaren ziurtagiria, enpresa ziurtagiriak…

Esperientzia profesionala dagokion Administrazio Publikoak emandako agirien bidez frogatu behar da, honako zehaztapen hauekin: betetako lanpostuaren izena/eginkizunak eta iraupena. Epaimahaiak bidezkotzat jotzen dituen egiaztapenak/eskaerak egin ahal izango ditu.

Enpresa pribatuan egindako zerbitzuak egiaztatzeko, enpresaren ziurtagiria edo Gizarte Segurantzako kotizazioak egiaztatzen dituen ziurtagiria aurkeztu beharko dira (lan-bizitzaren ziurtagiria). Horrez gain, enpresaren ziurtagiriak ondorengoa jaso beharko du: lanpostuaren izena/eginkizunak eta iraupena.

Ezin izango da baloratu eskabideak aurkezteko epearen barruan aurkeztu eta frogatu ez den merezimendurik, ezta epe horren barruan alegatu eta gero justifikatzen direnak ere.
Hiru egun balioduneko epean, onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda argitaratuko da udaleko iragarki oholean eta Aretxabaletako Udalaren egoitza elektronikoan. Baztertutakoen kasuan baztertzearen arrazoia adieraziko da.
Baztertutako hautagairik ez badago edo, egon arren, zerrenda jendaurrean jarri eta hiru egun balioduneko epean alegaziorik aurkeztu ez bada, ebazpena behin betiko bihurtuko da automatikoki.
Onartutakoen eta baztertutakoen zerrenda onartu eta gero, epaimahaia bilduko da eta hautagaien merituak baloratuko ditu eta merituen behin-behineko zerrenda argitaratuko da.
Zerrenda jendaurrean jarri eta hiru egun balioduneko epean alegaziorik aurkeztu ez bada, ebazpena behin betiko bihurtuko da automatikoki.

5.- Epaimahaia

Lehendakaria:

- Joseba Lopez de Armentia Ruiz

Mahaikideak:

- Nerea Altuna Arkauz
- Asier Mujika Altuna
- Mirari Aiastui Antxia

Sinatzailea	ALKATEA Garikoitz Iturbe Etxebarria
	Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Egiazkotasuna ziurtatzeko joan interneteko orrialde honetara: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/13/AAAAR2CEB.Cqu4

Aretxabaletako Udala

Idazkaria:
- Nahia Agirre Alegria

Epaimahaiak, bidezko baderitzo, aholkulari adituen laguntza eska dezake edozein probatan.

Epaimahaikideek ezingo dute esku hartu, eta Alkate-Lehendakariari horren berri emango diote, baldin eta 40/2015 Legeko (Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legea) 23. artikuluan aurreikusitako egoeretakoren bat gertatzen bada. Era berean, errefusa gai izango dira, Lege bereko 24. artikuluaren arabera.

Epaimahaia osatzen duten kideek gutxienez erdiek izan beharko dute lanpostura sartzeko eskatzen den jakintza-arlo berari dagokion titulazioa, eta guztiek maila akademiko berekoa edo goragokoa.

Epaimahaikide guztiek izango dute hitz egiteko eta bozkatzeko eskubidea, Epaimahaiko idazkariak izan ezik, hark ez baitu bozkatzeko eskubiderik izango. Bestalde, epaimahaia ezingo da eratu eta aritu Lehendakaria eta Idazkaria eta epaimahaikide titularren edo ordezkoen erdiak etorri ez badira.

6.- Lehiaketa fasea

Kontrataziorako erabiliko diren irizpideak eta puntuazioa honako hauek dira:

a) **Esperientzia**: Administrazio publikoan edo enpresa pribatuan liburutegiko laguntzaile gisa emandako zerbitzuak.

0,30 puntu liburutegiko laguntzaile lanean aritutako hilabete bakoitzeko. Gehienez 20 puntu.

b) **Formazioa**: Lanpostuarekin zerikusia duten ezagutzak izatea. Gehienez 10 puntu.
Ikastaro bakoitza honela baloratuko da:

- 10-20 ordu bitarteko ikastaroa: 1 puntu ikastaro bakoitzeko
- 21-50 ordu bitarteko ikastaroa: 2 puntu ikastaro bakoitzeko
- 51-100 ordu bitarteko ikastaroa: 3 puntu ikastaro bakoitzeko
- 100 ordutik gorakoak: 4 puntu ikastaro bakoitzeko
- Informazio eta Dokumentazioko gradua edo baliokidea izatea: 5 puntu

**Formazioa:* *ikastaroaren iraupena orduetan adierazten ez bada ez da kontuan hartuko.*

c) Aretxabaletan erroldatuta egotea: 10 puntu.

7.- Epaimahaiaren proposamena

Izangai bakoitzak lortu dituen puntuak batuta aterako da haren azken kalifikazioa, eta batuketa horrek erabakiko du izangaiak lehenesteko hurrenkera.

Puntuazioan berdinketa gertatuz gero, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 21.1.a) artikuluan xedatutakoaren arabera erabakiko da.

Bi izangaiek puntu kopuru bera izanez gero, eta biak sexu berekoak izanda, langabezian denbora gehien daramana kontratatuko da.

Sinatzailea	ALKATEA Garikoitz Iturbe Etxebarria
	Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Egiazkotasuna ziurtatzeko joan interneteko orrialde honetara: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/13/AAAAR2CEB.Cqu4

Aretxabaletako Udala

8.- Kontratazioa

Organo eskudunak, osatuko den zerrendatik lehena kontratatuko du 6 hilabeterako.

9.- Gorabeherak

Epaimahai kalifikatzaileak eskumena dauka sor daitezkeen zalantzak argitzeko eta lehiaketaren martxa ona zaintzeko beharrezko diren erabakiak hartzeko, oinarri hauetan eta hemen aplika daitekeen arautegi osagarrian xedatu ez den kasuetarako.

10.- Inpugnazioak

Deialdi hau, honen oinarriak eta hauetatik eta epaimahaiaren jardueratik erator daitezkeen egintza administratiboak inpugnatu ahal izango dituzte interesatuek, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legean ezarritako epe eta moduan.

Sinatzailea	ALKATEA Garikoitz Iturbe Etxebarria
	Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Egiazkotasuna ziurtatzeko joan interneteko orrialde honetara: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/13/AAAAR2CEB.Cqu4